



DISCURSO PRONUNCIADO POR SABINO ARANA EN HENDAIA EN 1901

SEÑORES:

No voy a leeros un discurso académico. La oratoria siéntanos mal a los bizkainos, que, al decir un literato español, somos más amigos de la brevedad en las palabras y de la larguezza en las obras.

Ni las galas retóricas suelen asociarse comúnmente con la verdadera ciencia, tras de la cual acá venimos.

Muchas veces la elegancia y la ostentación de la forma del discurso no desempeñan otro papel que el de ocultar la ausencia de profundidad en los conceptos: pues no hallándose lo verdadero, se busca la compensación en lo agradable, como la mujer desheredada de la natural belleza pretende tenerla por excusa con la artificial del estuco y la pintura. Al tener el honor de sentarse entre vosotros, busco las bellezas del euzkera, no la belleza de mi palabra; quiero palpar la realidad, no pagarme de apariencias.

Que tampoco este Congreso es una de las Academias en que los congregados, a falta de acuerdos prácticos que adoptar, suelen hallar esparcimiento y solaz en lucir su talento, su erudición o su habilidad literaria y en llamarse sabios mutuamente, a la vez que cada cual tenga la ciencia de llamarse humilde y la humildad de reconocerse ignorante. Otros fines más positivos han debido guiarnos aquí; de modo que este Congreso, siquiera no investido de la toga de Académico, venga a ser de hecho una verdadera Academia que seriamente indague la verdad y sólo aspire a prácticos resultados.

Para ello es lo primero no salirnos de los asuntos que constituyen el orden del Congreso, no sacrificar el fondo en aras de la forma y en la polémica no incurrir en prolacidad y divagaciones.

Y si nuestra obra ha de ser práctica aplicación, aún entiendo que debemos hacer caso omiso del segundo de los puntos que se nos ha señalado en la convocatoria, y es aquel que consiste en fijar los principios filosóficos en que se basa el euzkera.

Si de los principios teóricos de filología se trata, nada menos practicable que su resolución y formulación mediante una polémica oral; pues que en este orden puramente especulativo, prescindiéndose de pruebas de carácter empírico, siempre cada filólogo sostendrá su propio criterio, sin que sea posible establecer una norma a todos acepta.

Y si a los principios especiales en que el euzkera se haya basado en su génesis y desarrollo se alude, no es menos claro que hoy sería del todo punto imposible llegar a un razonable acuerdo.

Todos sabemos, señores, cuánto campo gramatical tenemos en el euzkera aún por explorar, y nadie ignora cuán poco es lo que en el análisis del léxico hemos caminado. Si, pues, para hallar las leyes que han regido la creación y el desenvolvimiento de una cosa es preciso investigar los elementos de que se compone y los fenómenos que en sus combinaciones, a través del tiempo y en el espacio, se han ventilado, ¿cómo será posible definir hoy todavía los principios de la generación del euzkera han precedido, ni menos hacerlo de modo que a todos los euzkerálogos satisfaga?

Gran beneficio sería para el euzkera tener un solo tratado gramatical, exacto y por todos admitido; una sola colección lexicográfica o diccionario, auténtico, puramente indígena, completo y de todos aceptado.

Pero esto, hoy por hoy, bien lo sabéis, señores, no es posible. Hay diversidad en método de estudio y aún en el expositivo o didáctico; honda disparidad en las interpretaciones científicas; radicales divergencias en la inducción de los principios; múltiple variedad en sus aplicaciones; y aún hay, (preciso es confesarlo, señores, si hemos de corregirnos) un marcado prurito de originalidad, que si casi nunca conduce al descubrimiento de cosas ocultas, porque esto no se alcanza con sólo desearlo, y aplicarse en el estudio, engendra en el ánimo un cierto desdén y menosprecio para todo lo que sea obra de otro, rechazándolo sin examinarlo, y únicamente porque de él procede.

El obstáculo lo tenemos, pues, no sólo en el criterio, sino también en las afecciones: la nacionalidad y hasta la política de un autor influyen en que su obra sea por los demás bien o mal recibida. No es posible, de consiguiente, nos pongamos de acuerdo respecto de los principios que al euzkera informan. Más difícil sería que el acuerdo que adoptásemos estuviese ajustado a la verdad.

Espero lo entenderéis así también vosotros y convendréis conmigo en que debemos prescindir, en este Congreso, del referido asunto de la orden del día, para fijar nuestra atención simplemente en el tema que somete a deliberación del Congreso la unificación de la ortografía euzkérica.

El señor Presidente, al señalarnos este punto, ha obrado con gran acierto y se ha hecho merecedor de nuestro pláceme y de un sincero unánime voto de gracias. Por ahí, por la ortografía, es por donde tenemos que empezar.

Pero antes de entrar en materia permitidme, señores, os diga dos palabras a guisa de advertencias.

Este Congreso es euzkerológico, se reúne para estudiar y fijar una parte del euzkera; es, por tanto, científico. Porque es científico conviene asistir a él todos cuantos al estudio del euzkera, poco o mucho, se dediquen.

Todos pueden ilustrarnos. A nadie debe excluirse, así aborreza a nuestro pueblo y opine que nuestra lengua y raza deben desaparecer por constituir una rémora al avance de las ideas modernas hacia el interior de nuestras montañas. Quienquiera que sea, si ha estudiado el euzkera, puede darnos luces que nos guíen en su análisis. Si a las elucubraciones meramente científicas asociaría manifestaciones sociales o políticas, discurrimiento hemos de tener en grado suficiente para separar las unas de las otras, tomando de las primeras lo que sea utilizable, y sangre fría bastante para oír serenamente las segundas, callando luego, o bien exponiendo las ideas contrarias con igual calma. La ciencia, como tal, es libre; libre



DISCURSO
PRONUNCIADO
POR SABINO
ARANA EN
HENDAIA
EN 1901

es la razón para adquirirla y exponerla. De ciencia se trata aquí, no de saludar a un pueblo. Acudan, pues, enhorabuena cuantos sean euzkerálogos, siquiera detesten al nuestro. De sus mismas armas nos habremos de valer a favor de nuestra lengua.

Porque, en efecto, señores: este Congreso, además de euzkerológico, es euzkeráfilo. Si sólo de estudiar el euzkera se trata, es seguro que un buen golpe de concurrentes habíamos permanecido en nuestras casas, bien convencidos de que, para examinar el euzkera, sin otro fin positivo, allí mismo lo tenemos al alcance de nuestros ojos y para nada necesitábamos de los del prójimo. Pero, no: este Congreso si es euzkerológico, lo es por ser euzkeráfilo; quiere que el euzkera viva, se fortalezca y desarrolle y se propague en su tierra, y porque quiere su vida dispónese a estudiarlos para librarse de las causas de su muerte. No hemos venido a hacer la autopsia de un cadáver antes de que se descomponga, para dejar descrito su admirable organismo a los que hayan causado su muerte y en la esfera de la vida pretendan sustituirlo. No es un cadáver, es un enfermo el que tenemos delante, siquiera moribundo, y porque le amamos no nos resignamos a desahuciarle, sino que a estudiar su enfermedad venimos para darle la salud. Y de aquellos que al Congreso asistan sin preocuparse porque el euskera viva sino sólo con el fin de estudiarlo como se estudia la anatomía de un cuerpo orgánico muerto, esperamos confiadamente han de respetar nuestra aspiración y que con la misma nobleza que con ellos hemos usado al reunirnos en una misma asamblea, han de emitir su parecer, en las cuestiones puramente científicas que se ventilen, como les dicte su leal saber y entender, independientemente de preocupaciones que tengan o determinados ideales que profesen.

Con ellos justamente estudiaremos el euzkera. Ellos recibirán de nosotros datos que puedan utilizar en sus investigaciones filológicas; nosotros, a nuestra vez, obtendremos de ellos otro de cuyo conocimiento nos habremos de servir para procurar el renacimiento de nuestra lengua patria.

Ahora bien, señores: para que el euzkera se levante y viva son indispensables a la vez dos cosas: hacerlo necesario para la vida, en grande o en pequeño círculo, dentro de su propia tierra, y hacerlo apto de satisfacer esas mismas necesidades.

Prescindid de lo primero, y el euzkera podrá ser una lengua literaria, un objeto de lujo para los ricos, un instrumento científico para los filólogos, historiadores y antropólogos, pero nunca será lengua del pueblo, lengua viva. Haced caso omiso de lo segundo, y el euzkera podrá en más o menos tiempo seguir siendo lengua de pescador, del campesino y del pastor de una parte de la tierra vasca; pero, oprimido de todos lados por las lenguas neolatinas y no sirviendo más que para hablar de la pesca, el pastoreo y la labranza, irá rápidamente retirándose hacia los más escondidos reductos de sus montañas, para extinguirse al cabo, y seguramente en fecha no lejana.

En uno y otro caso el euzkera desaparece como lengua viva; el euzkera muere.

Pero hacedlo necesario, en grande o pequeña escala, a la vida social dentro del territorio de la raza a que pertenece, como el español es necesario para vivir en España y necesario el francés para vivir en Francia y al mismo tiempo hacedle capaz de llenar esas necesidades a que por darle vida se le sujeté, y apto para hablar, leer y escribir de geografía e historia, de sociología y de política, de moral y derecho, de filosofía y bellas artes, de industria y comercio, de economía y hacienda, de todo, en fin, cuanto en la sociedad humana sirve para el cultivo del espíritu y para procurarse recursos de vida y medios de progreso; y entonces tened por seguro que el euzkera vivirá vida propia, lozana y próspera, a pesar de la invasión y el nepotismo del dominador.

Habilitado así el euzkera para acomodarse a las exigencias de la sociedad actual, y hecho necesario a la vez para la vida moderna, será ya posible escribir textos euzkéricos



y fundar escuelas para adquirir en nuestra lengua cualquier género de conocimientos, y será a un tiempo consecuencia necesaria el publicar los primeros y el abrir las segundas.

¿Por qué en esta misma ocasión me veo precisado a dirigiros la palabra en español, sino porque ni a mí me sería fácil hablaros de estas materias en la lengua de nuestra raza, ni a vosotros el entenderme?

¿Por qué las cátedras de euzkera de Donostia, Iruña y Bilbao son ya un fracaso, sino porque no habiendo patriotismo, es lógico no amar el euzkera, y porque no habiendo utilidad alguna en poseerlo no hay tampoco por qué molestarse y perder el tiempo en aprenderlo?

En general hoy la ilusa y frívola pretensión de cosechar el fruto sin cultivar la planta; hay obstinado empeño en empezar por donde tenemos que concluir; confúndese lastimosamente el efecto con la causa, y se juzga que de la enseñanza y la literatura de una lengua, es de los que recibe ésta la vida, cuando es todo lo contrario.

La literatura no desciende al pueblo, sino que de él brota y se levanta. No son las escuelas las que hacen necesario el uso de la lengua, sino que de la necesidad de este uso nacen las escuelas. ¿Qué autor escribirá en lengua que nadie entienda? ¿Qué escuela se verá concurrida como en ella se dé la enseñanza en idioma que para nada sirva? Si en Francia se estudia en francés y hay literatura francesa, es porque al idioma francés se le ha hecho necesario para vivir en Francia. Si en España se estudia y habla y escribe en castellano, es porque el castellano se ha impuesto oficialmente y hecho necesario para vivir en España.

Hagamos los vascos que el uso del euzkera sea necesario en nuestra tierra, si queremos que el euzkera viva. Ciertamente: como el pueblo vasco alcanzara su... (La revista "Jel", al reproducir en 1908 este discurso, suprimía a partir de aquí varias palabras y las sustituía por puntos suspensivos) todo sería cuestión de una plumada de gobierno, y la necesidad del uso del euzkera se extendería a todo el territorio. Pero en el presente estado de... vasca y de... franco-hispana, sólo de la iniciativa e influencia particular puede esperar el euzkera hacerse necesario en extensión relativa, y apto, en absoluto, de llenar el uso a que se aplican las otras lenguas en la vida moderna.

No está pues, la muerte del euzkera en manos del... sino que en las manos del vasco su vida. Si muere, culpémonos a nosotros mismos.

A las autoridades y a los ricos del país vasco incumbe el hacer necesario el uso de la lengua indígena. El procedimiento es bien claro; primeramente establecer como condición preferible, y luego, muy pronto, como requisito indispensable, el hablarla, para emplearse en sus oficinas, dependencias y trabajos. Grandes serían al principio los obstáculos que se interpusieran y no despreciables los perjuicios económicos que se les irrogaran: pero las altas empresas siempre están erizadas de ásperas dificultades, y del amor patrio, como de todos los amores, sólo es signo infalible el desinterés y el sacrificio, y el amor patrio en una patria tan desgraciada como la nuestra es heroica virtud colmada de contrariedades y abnegaciones.

El otro remedio de que simultáneamente hay que echar mano para salvar de la muerte a nuestra lengua y que, rigurosamente considerado, es más urgente, sino más ineludible que el anterior, es, señores, el que a nosotros nos compete aplicar en estos Congresos: hacer que el euzkera sea capaz de satisfacer el vasto y complicado empleo de que un idioma se exige en las naciones cultas; y no a otro fin entiendo, señores, nos reunimos en este Congreso, que es de esperar ha de seguirse de otros.

DISCURSO
PRONUNCIADO
POR SABINO
ARANA EN
HENDAIA
EN 1901



DISCURSO
PRONUNCIADO
POR SABINO
ARANA EN
HENDAIA
EN 1901

Pero al disponernos al cumplimiento de nuestro honroso cometido, hemos de reconocer por fuerza que el primer paso que tenemos que dar para intentar el renacimiento social del euzkera, es evidentemente éste de la unificación de la ortografía, para el cual hemos sido convocados con acuerdo digno de aplauso.

Extended la vista por los autores que en euzkera escriben o de él tratan y apenas hallaréis que estén conformes en la representación gráfica de las voces.

No se reconoce autoridad alguna, y hasta tal punto es esto cierto, que bien puede decirse que cada autor posee su particular sistema de ortografía. ¡También aquí el vasco ha querido ejercitarse en su propio daño su característica independencia individual!

Llegar entre todos a un acuerdo en punto tan capital, debe ser nuestro primer desideratum, y el fin a que debemos consagrarnos todo nuestro esfuerzo.

Mas precisa entender que para alcanzarlo se requiere: 1º Que sometamos el asunto a un estudio concienzudo, para que el sistema gráfico que adoptemos sea lo más acertado posible; y 2º que obtengamos el mayor número de previas adhesiones a la ortografía que acordemos, de suerte que, si no todos, la mayor parte quedemos voluntariamente obligados a admitirla y emplearla con exclusión de otra alguna.

No se satisfaría la necesidad que sentimos, no honraría a este Congreso el tomar una resolución sin antes estudiar detenidamente cuantos proyectos quisieran presentarse: que no es la discusión oral donde suele hacerse más luz, ni son los parlamentos los padres de los mejores acuerdos. La imaginación, la viveza de ingenio y la verbosidad, que en ellos triunfan, no suelen ser las más constantes compañeras de la inteligencia intuitiva, de la penetración profunda y del juicio sereno.

Ni aunque más allá de la ortografía que nosotros conviniéramos discutiendo en una o varias sesiones simplemente orales, no pudiera ya darse un paso razonable; aunque por suerte nos resultara tal que no fuera posible quitarle, añadirle ni modificarle nada sin menoscabo de la conveniencia y de la lógica: nada habríamos adelantado, si no contábamos con la conformidad de los más, con su palabra formal de adoptarla en todos sus escritos, excluyendo otras.

Sinceramente os declaro, señores, que si de sesiones puramente orales, hubiese de salir vencedor mi sistema de transcripción, ni su mismo autor reconocería a este Congreso competencia para así declararlo, no ciertamente por razón de las autoridades que lo constituyen, sino por el procedimiento de mera discusión verbal que queda supuesto.

Por estas razones, firmemente convencido de que ni en esta sesión ni en dos o más que ahora celebrásemos, podríamos llegar a una solución bajo todos puntos de vista satisfactoria, he trazado, para llevar a feliz término este problema de la unificación de la ortografía euzkérica, un plan que voy a tomarme la libertad de leeros y que tengo el honor de someter a nuestro examen a manera de proposición.¹

1º.- Dentro del mes actual, en la prensa diaria de más circulación en cada una de las regiones vascas, se publicará durante varios días, una circular, firmada por todos los euzkeristas que han asistido al presente Congreso, y en la cual se invite

1. Al disponerse después de este preámbulo —aclaraba la revista "Jel" en 1908— el señor Arana y Goiri a leer el plan, monsieur Guilbéau, que había convocado el Congreso y que de hecho lo dirigía, le suplicó suspendiera su lectura, accediendo a ello el señor Arana. Entonces Mr. Guilbéau recordó que antes del Congreso se había acordado dividir en tres comisiones el total de congresistas, a fin de que estudiaran la unificación de la ortografía para luego proponérsela a aquél. Hizose así, nombrándose para presidir dichas comisiones a tres señores que formaban la Presidencia de honor, a saber: el Canónigo de Baiona Mr. Adema, venerable anciano, y los señores Campión y Arana. La comisión presidida por este último, de la cual formaba parte también Mr. Guilbéau, aprobó por unanimidad la proposición presentada por su presidente, y reunido nuevamente el Congreso, después de una interrupción de dos horas, éste a su vez adoptó, también por unanimidad, el mismo acuerdo. El plan del señor Arana, que fue así acordado.



a todos los euzkerálogos y euzkeráfilos nacionales y extranjeros a adherirse al Congreso que en su día se celebrará con el único objeto de acordar la unificación de la ortografía euzkérica.

La adhesión significará probable asistencia a dicho Congreso y palabra formal de atenerse a sus resoluciones y de no usar en públicos escritos con otra ortografía que la que por el mismo Congreso quede acordada.

El plazo para admitir las adhesiones expirará el 15 de octubre.

2º.- Dentro de la segunda quincena de octubre, el señor Presidente del actual Congreso, invitará a todo el que sostuviese en el asunto su particular criterio, a escribir y hacer imprimir un proyecto de unificación de la ortografía euzkérica, siguiendo en su obra el método que estime conveniente, pero exponiendo, de todos modos los “sonidos iguales”, los “principios ortográficos” y las “reglas de criterio” que se han de observar en la unificación y adaptando ésta a todos los dialectos en lo que de común tengan.

La invitación se dirigirá a todos los euzkeristas adheridos, remitiendo a cada uno de ellos lista completa de todas y de sus direcciones.

El autor de un proyecto enviará antes del 31 de diciembre dos ejemplares del mismo al señor Presidente de este Congreso, y uno a cada uno de los euzkeristas, con lo que “ipso facto”, tendrá derecho a que sea discutido su proyecto en el Congreso definitivo. El señor Presidente, tan pronto como reciba los dos ejemplares de un proyecto, acusará su recibo al autor, y dará aviso de ello a los demás euzkeristas adheridos.

3º.- Terminado en 31 de diciembre el plazo para la admisión de proyectos a discutir, se concederán los seis meses siguientes para que los euzkeristas adheridos puedan formular y hacer imprimir sus objeciones a cada uno de aquellos.

La refutación a cada proyecto impreso aparte la dividirá su autor con números en puntos concretos y bien definidos, y enviará al señor Presidente dos ejemplares de la misma, y uno a cada uno de los congresistas. El señor Presidente acusará su recibo al autor y se lo anunciará a los demás congresistas en la misma forma seguida con los proyectos.

4º.- El Congreso definitivo se celebrará en septiembre de 1902. El señor Presidente convocará a él a todos los euzkeristas con quince días de anticipación, añadiendo a la convocatoria la orden de sesión o sesiones, consistente en lista de los autores de proyecto y lista adjunta de autores de refutaciones a cada uno de éstos.

5º.- Si no fuere bastante una sesión para discutir y votar todos los proyectos, el Congreso celebrará varias consecutivas.

Para la discusión y votación de los proyectos, éstos guardarán el orden cronológico de admisión.

El señor Presidente mencionará al autor del proyecto, y a continuación a los que ha refutado. Seguidamente, el autor del proyecto podrá consumir un turno oral de cinco minutos para defender su proyecto contra el primer punto de la refutación primera, y otro turno igual el autor de ésta. Lo mismo se procederá respecto del segundo punto de la refutación y así en las demás refutaciones.

DISCURSO
PRONUNCIADO
POR SABINO
ARANA EN
HENDAIA
EN 1901



Terminada la última polémica del proyecto, éste será puesto a votación.

Una vez votados todos los proyectos, el señor Presidente, en nombre de todo el Congreso, declarará adoptado el que obtuviere más votación. Si ningún proyecto es favorecido por el voto de la mitad más uno de congresistas presentes que lo tengan, se declarará desierto el tema objeto del Congreso.

6º.- En todo caso, el acto de la sesión o sesiones, será publicada impresa, remitiéndose un ejemplar a cada congresista, y si algún proyecto fuese adoptado, se publicarán juntamente con el acta todos los proyectos y todas sus respectivas refutaciones.

7º.- En el Congreso podrá hablarse en francés y en español además del euzkera. Habrá un taquígrafo de francés y otro de español.

Los congresistas no naturales del País Vasco tendrán voz, para presentar proyectos o para refutar otros, pero carecerán de voto.²

**Hendaia, 16 de septiembre de 1901
Sabino de Arana y Goiri**

DISCURSO
PRONUNCIADO
POR SABINO
ARANA EN
HENDAIA
EN 1901

2. Este plan aprobado por el Congreso no se ha cumplido, ignoramos —concluía “Jel” en 1908— por qué causas.





1901 EKO IRAILAREN 16AN SABINO ARANAK HENDAIAN EGIN ZUEN HITZALDIA

JAUNAK:

Ez dizuet hitzaldi akademikorik irakurriko. Bizzkaitarrok ez gara trebeegiak oratorian. Spainiako idazle batek dioenez, hitzen laburra eta ekintzen luzea gurago izaten dugu.

Gainera, erretorikaren apaindurak ez ohi dira egon benetako jakintzari loturik, eta gu jakintzaren bila eterri gara hona.

Askotan, hizlariak beren kontzeptuen mamirik eza ezkutatzen ahalegintzen dira hizkera dotore eta arranditsuaren azpian: ezer ganorazkorik eskaintzerik ez dutenez, nola edo hala atsegin eman nahi izaten digute, berez ederra ez den emakumeak iztuku eta margoetan sasi- edertasuna bilatzen duen legez. Ni neu, zuen artean jesartzeko ohorea dudan honetan, euskararen berezko edertasunaren bila nabil, ez dit ardura nire hitzen edertasunak; barruko egiari eutsi nahi diot, azaleko itxurak ez nauelako asebetetzen.

Honako biltzar hau ere ez dugu akademia horietako bat, non batzarretako kideak, funtsezko erabakirik hartuko ez dutela ondo dakitenez, jostetan aritzen baitira, euren buru argitasuna, jakinduria edo letretarako trebezia elkarri erakutsiz eta elkarri jakintsu esanez, aldi berean, apaltasun maltzurraz nork bere burua ezjakintzat aurkezten dutela. Gu guztiok, nire iritziz, beste gauza hobeago baten bila bildu gara hona; beraz, akademikoen jantzirik soinean ez badugu ere, biltzar hau benetako Akademia bihurtuko zaigu. Egia zintzoki ikertuko dugu eta ez dugu beste emaitzarik onartuko emaitza baliagarriak baino.

Horretarako, lehenengoz eta bat, gogoan izan behar dugu ez dugula biltzarreko aztergaien haritik urrundu behar, ez dugula gaien azalean geratu behar, muinari heldu baino, eta eztabaidetan albait laburren eta zehatzen esan behar ditugula esan beharrekoak.

Eta areago, gure lanaren emaitzak erabilgarriak izango badira, nire ustez, ez genioke jaramonik egin beharko deialdian agindu dizkiguten gaietariko bigarrenari, hau da, euskararen abiaburu filologikoak ezartzeko aginduari.

Zeren, filologiaren abiaburu teorikoez ari garela, ez litzateke batere erraza izango halako printzipioak ahozko eztabaidea batean ebatzi eta adieraztea; izan ere, espekulazio hutsean geratzen bagara, frogatzen enpirikoak alde batera utzita, filologo bakoitzak bere iritziari eutsiko lioke eta ezinekoa izango litzaiguke denok ontzat eman genezakeen araurik ezartzea.

Eta euskarak bere sorreran eta garapenean izan dituen printzipoio bereziei erreparatuz gero, garbi dago, era berean, gaur erabat ezinezkoa zaigula zentzuzko adostasunik lortzea.

Denok dakigu, jaunak, euskararen gramatikan zelako arlo zabala daukagun oraindik lantzeko, eta zein luzea den lexikoaren ikerketan egin behar dugun bidea. Edozein izaki-en sorreran eta bilakabidean indarra izan duten legeak aurkitu nahi baldin badira, ikertu egin behar dira izaki horren osagaiak, sortu zenez geroztik harengan eragina izan duten gertaerak eta horien arteko loturak. Hori horrela izanik, nola zehaztu genitzake gaur egun euskararen sorkuntzaren abiaburuak, euskalari guztiak onesten duten eran zehaztu ere?

Onura handia ekarriko lioke euskarari gramatikazko tratatu bakarra izateak, gramatika zehatza eta mundu guztiak onartua; bilduma lexikografiko edo hizkera bakarra, zintzoa, erabat jatorra, osoa eta denek onartua.

Baina oraingoz ezinezkoa da, jakin ondo dakizuenez, jaunak. Ikertzeko metodo desberdinak, baita adierazpideak edo irakasteko erak ere, hainbat eta hainbat dira; interpretazio zientifikoen artean alde handiak ditugu; desadostasunak printzipoien arrazoiketan; aniztasun handia printzipoien erabilera; eta oraindik ere nabari da (aitortu egin beharko dugu, jaunak, akatsak zuzenduko baditugu) jatortasunerako grina hori, ezkutuko gauzarik aurkitzera eroango ez gaituena, irrika ez delako nahikoa horretarako, ezta ikerketan buru-belarri jardutera ere; bai, ostera, inoren lana gutxiestera eta aintzat ez hartzen, ikusi ere egin gabe gaitzestera, inorena delako, beste arrazoirik gabe.

Oztopoak, beraz, iritzietan ez ezik, inguruabarretan ere baditugu: egilearen naziotasunak, are pentsaera politikoak, badute zerikusirik besteek haren obrari egiten dioten harrera on edo txarrarekin. Ezin ginteze bat etorri, beraz, euskara gorputzen duten printzipoien inguruan. Are zailago izango genuke egiaren antza duen ezer ebaztea.

Uste osoa dut zuek ere iritzi berekoak zaretela eta nirekin ados zaudetela biltzar honetan baztertzea behar dugula aztergaien zerrendako gai hori, gure arreta eta ahalegina osorik eskaintzeko biltzar honetako beste zereginari, hau da, euskararen ortografia arauak bateratzeari.

Mahaiburu jaunak bete-betean asmatu du ortografiaren gaia jarri digunean, eta guzti gorespena eta esker ona merezi du. Ezer baino lehen, arlo horixe, ortografiaren arloa, landu behar dugu eta.

Lanean hasi aurretik, zuen baimenaz pare bat ohar egingo dizuet.

Biltzar hau euskarari buruzkoa da, euskararen alderdietako bat ikertu eta finkatzeko bildu garenez gero. Hortaz, biltzar zientifikoa da. Eta zientifikoa delako, komeni da euskara gutxi-asko ikertzen diharduten guztiak etortzea.

Guztiekin irakatsi ahal digute zer edo zer. Inortxo ere ez dugu baztertu behar, ezta gure herriaren etsairik amorratuenak ere, edo gure hizkuntza eta gure arraza betiko galtzea hobea dela uste dutenak, gaurko ideia berriak gure mendien artetik sartu ahal izan daitezen. Edonor izanda ere, euskara aztertzen aritua baldin bada, bidea argitu ahalko digu euskararen ikerketan aurrera egiteko. Benetako gogoeta zientifikoekin batera, tarteka gizarte edo politika auzien ingurukoak botatzen badizkigute, guk gauza izan behar dugu batzuk besteetatik bereizteko, lehenengoetatik balio digutenak geureganatzeko eta bigarrenak lasai entzuteko; gero isilik geratu ginteze edo bestela aurkako iritziak patxadaz adierazi. Zientzia berez askea da; zientzia ikasteko eta erakusteko adimena ere bai. Hemen darabilgun gaia zientzia da eta ez inongo herrien goraipamenik. Datozela, bada, euskararen



ikertzaile guztiak, gure herria gorroto badute ere. Euren arma berdinez baliatuko gara gure hizkuntzaren alde egiteko.

Zeren biltzar hau, jaunak, euskararen gainekoa izateaz gain, euskararen ikertzaileen eta euskaltzaleen biltzarra baita. Euskararen ikerketa beste helbururik izan ez bagenu, ziur nago guitariko asko eta asko etxeen geratuko ginela, etxeen ere geure begiez aztertu ahal dugulako euskara inoren laguntzaren beharrik gabe. Ez da hala, ordea: biltzar hau euskalarien biltzarra da euskaltzaleen biltzarra delako; biltzarkideok euskara bizi dadin, indartu dadin eta bere lurrean zabaldu dadin nahi dugu, eta euskara ikertzera etorri gara bizirik ikusi nahi dugulako eta heriotzara eraman dezaketen gaitzetatik sendatu nahi dugulako. Ez gara etorri gorputua usteldu orduko autopsia egitera, haren berezitasun miresgarrien deskripzioa egitera hura hil duten eta beste hizkuntza batez ordezta nahi duten horientzat. Euskara ez dago hilik, gaixorik dago, hilzorian beharbada, eta maite dugulako ez diogu etsipenik eman nahi. Aitzitik, beraren gaitza ikertzera gatoz, bere onera ekartzearen. Eta biltzarkideren bat euskararen iraupenak ardura ez badio, gorpu baten anatomia azterzen den moduan euskara azterzera etorri bada, begirunea eskatzen diogu gure xedeentzat, berarekin batera batzar hotetara bilduta, guk agertu diogun adinako zintzotasunarekin bere iritziak adieraz ditzala hemen erabiliko ditugun gai zientifikoen gainean, eta aldi baterako ahaztu egin ditzala bestelako ardurak edo xedeak.

Halakoekin batera, beraz, euskara aztertu besterik ez dugu egingo biltzar honetan. Geure datuak emango dizkiegu hizkuntzari buruzko ikerketan erabil ditzaten; guk geuk beste datu batzuk hartuko dizkiegu eta halek baliatuko ditugu geure aberri hizkuntza bizi-berritzeko ahaleginean.

Euskara lagi eta bizi dadin, ezinbestekoak dira gauza bi aldi berean: bere lurrardearen barruan bizitzarako beharrezko egitea, lagunarte handian zein txikian, eta beharrizan horiek beroriek asebetetzeko gai bilakaraztea.

Lehenengo baldintza betetzen ez bada, euskara literatura-hizkuntza izan liteke bai, aberatsentzat atseginingarria, hizkuntzalari, historialari eta antropologoentzat ikergai bikaina; baina sekula ere ez da izango herriaren hizkuntza bizia. Bigarren baldintzari jaramonik egin ez, eta euskarak aldi batez arrantzale, baserritar eta artzainen hizkuntza izaten segituko du euskotarren lurraldeko leku batzuetan; baina latindar hizkuntzek estutu egingo dute alde guztietatik eta ez du bestetarako balio izango arrantzale, artzain eta baserritarren kontuez hitz egiteko baino, azkar egingo du atzera mendietako babeslekuetik ezkutuenetaraino, eta azkenean galdu egingo da, luze gabe, seguruenik.

Kasu bietan ere euskara ez litzateke gehiago izango hizkuntza bizia; euskara hil egingo litzateke.

Bihur dezagun nahitaezko euskara arazo handiez zein txikiez jarduteko geure gizarte-arlo guztietan, espaniera beharrezkoa den legez Spainian bizi izateko eta frantsesa Frantzian bizi izateko, eta aldi berean, gauza bilaka dezagun hizkuntza biziarrak duten beharrizan horiek guztiak asetzeko, berbarako, geografia eta historia, soziologia edo politika, morala edo zuzenbidea, filosofia eta arte ederrak, industria eta merkataritza, ekonomia eta ogasuna, eta beste hainbat arlo euskaraz jorratu ahal izateko, ahoz zein idatziz, azken batean, euskaraz gogoa landu, bizimodu atera eta gizartean aurrera egin ahal izateko; orduan, ziur egon zaitezte euskara sendo eta osasuntsu biziko dela, menperatzai-learen esku-hartze eta nepotismo guztiak gorabehera.

Euskara gaurko gizartearen beharrizanetara moldaturik eta bizitza modernorako ezinbesteko hizkuntza bihurturik daukagunean, orduan euskal testuak idatzi ahal izango



dira eta ikastolak sortu ahal izango dira umeek denetariko gauzak geure hizkuntzan ikas ditzaten. Gainera, ikastolen sorkuntzak ondorio gisa ekarriko du testuen argitalpena.

Oraintxe bertan, zergatik ari naiz ni espainieraz? Bada, niretzat zaila litzatekeelako aztertzen ari garen gaiez gure arrazaren hizkuntzan mintzatzea, eta zuentzat ere zaila litzatekeelako ulertzea.

Zergatik daude jadanik hondoa jota Donostia, Iruña eta Bilboko euskara katedrak? Bada, abertaletasunik ez dagoen lekuan euskararen maitasunik ere ez dagoelako, eta euskara jakiteak ezertarako balio ez duenez, ez dagoelako zertan denbora alferrik galdu euskara ikasten.

Landarerik landu gabe fruituak biltzeko itxaropen zoroa daukagu; azkenetik hasten tematzen gara; ondorioa eta kausa negargarriro nahasten ditugu; eta literaturak hizkuntzari bizia emango diotela uste izaten dugu, egia erabat kontrakoa izan arren.

Literaturak ez dauka herritarrenganaino jaitsi beharrik, herriarengandik sortzen eta altxatzen delako. Ez dira ikastolak hizkuntza erabiltzera behartzen gaituztenak, alderantzik, hizkuntza erabili beharrak sorrarazten ditu ikastolak. Nork idatziko du ezer inork ulertzen ez duen hizkuntzan? Nor joango da ikastolara ezertarako balio ez duen hizkuntzan ikastera? Frantzian frantsesez ikasten dute eta badago frantses literatura, hain zuen ere frantses hizkuntza beharrezkoa delako Frantzian bizi ahal izateko. Spainian, gaztelania erabiltzen da ikasteko.

Egin dezagun euskaldunok ere euskara beharrezkoia geure lurraldean, euskara bizi dadin nahi badugu behintzat. Jakina, euskal herriak noizbait lortuko duenez bere... ("Jel" aldizkariak, 1908an hitzaldi hau jaso zuenean, hemendik aurrera hitz batzuk kendu eta eten-puntuak jarri zituen) gobernuaren agindu bat nahikoa izango litzateke euskara erabili beharra lurralte osora hedatzeko. Baino oraingoz... euskotarra eta... frantses-española, norbanakoekin ekimena eta eragina beste biderik ez dago euskara eremu nahiko zabalean beharrezkoia izatea lortzeko, eta gauza egiteko gaineko hizkuntzek bizimodu modernoan erabiltzen diren bezalaxe erabili ahal izan dadin.

Euskararen heriotza, hortaz, ez dago... horren esku; aldiz, euskotarren esku dago euskararen bizia. Hiltzen bada, errua geure buruari bota behar diogu.

Euskal Herriko agintariei eta aberatsei dagokie bertako hizkuntzaren erabilera beharrezko bihurtzea. Prozedura, berriz, erraz asmatzen da; lehenengo eta bat, euren bulego, lantegi eta lanpostuetan langileak hartzeko orduan, euskara dakitenak hobestea, lehenbikiko aldian, eta euskara jakitea ezinbesteko baldintza gisa jartzea, geroxeago. Hasieran oztopo izugarriak aurkituko dituzte eta jasan beharko dituzten kalte ekonomikoak ere ez dira huskeria izango; baina xede gorenak betetzeko bidean beti aurkitzen dira oztopo latzak. Aberriarenenganako maitasuna, maitasun guztiak legez, bihotz zabaltasun eta eroapenaren bidez erakusten da, eta gurea bezalako aberri zorigaiztoko batean abertaletasuna heroien bertutea da, alboan neke eta pairamen asko dakartzana.

1901 EKO
IRAILAREN
16AN SABINO
ARANAK
HENDAIAN
EGIN ZUEN
HITZALDIA

Bada beste sendabide bat aurrekoarekin batera erabili behar duguna geure hizkuntza heriotzatik salbatzeko, eta zorrotz jokatzekotan, berau aurrekoia baino premiazkoagoa, beharrezkoagoa dugula aitortu beharko dugu. Jaunak, geuri dagokigu hizkuntzari sendabide hori ematea honelako biltzarretan: nazio kultuetan hizkuntzari eskatzen zaion erabilera sorta ugari eta konplexua eskaintzeko gauza bihurtu behar dugu euskara; eta uste dut denok asmo horrexekin etorri garela biltzar honetara, jaunak, eta biltzar honen atzetik beste batzuk etorriko ahal dira.



1901 EKO
IRAILAREN
16AN **SABINO**
ARANAK
HENDAIAN
EGIN ZUEN
HITZALDIA

Baina gure eginbehar eder hori betetzera goazela, nahitaez aitortu behar dugu, euskararen gizarte-pizkundeak lortzen saiatzeako egin behar dugun lehen urratsa, argi eta garbi, ortografia arauen baterakuntza besterik ez da, eta horrexetarako deitu digute hona, erabaki txalogarri bat betez.

Begiratu euskarari buruz edo euskaraz idazten duten egileen multzoari, eta ozta-ozta aurkituko dituzue hotsak irudikatzeko ikur grafiko berak erabiltzen dituzten idazle bi.

Ez da inongo aginterik ezagutzen, eta hori hain da egia, ezen esan bailiteke idazle bakoitzak bere ortografia sistema berezia darabilela. Berriz ere euskaldunok, nor bere buruaren jabe izan nahi eta geure buruaren kaltetan ari gara!

Denon artean nola edo hala bat etorri behar dugu horrelako arazo garrantzitsua ebazteko, horixe izango da gure asmo nagusia eta betetzen ahaleginduko garen helburua.

Baina kontuan eduki behar dugu zer egin behar dugun helburu horretara iristeko:

1. Gaia zehatz-mehatz aztertu, onartuko dugun sistema grafikoa ahalik eta egokiena izan dadin; eta 2. ahalik eta jende gehienek aldez aurretik onartutako ortografia sistema ezarri behar dugu; horrela, den-denok ez, baina gehienok behintzat, aurretiaz hitz emango dugu sistema hori besterik ez dugula erabiliko aurrerantzean.

Sumatzen dugun beharrizana ez litzateke aseko eta biltzar honek ezingo luke era-bakirik hartu baldin eta lehenago sakonean aztertuko ez bagenitu aurkeztu nahi diren proiektu guztiak: ez da ahozko eztabaidea izaten argigarriena, ez dira parlamentuak izaten erabakirik onenen sorlekuak. Irudimena, buru-argitasuna eta hitz-itorria, halako lekuetan gailendu ohi diren dohainak, hain zuzen ere, ez dira izaten berezko adimenaren, arrazoi-keta sakonen eta irizpen lasaien lagunik zintzoenak.

Eman dezagun ahozko saio batean edo gehiagotan eztabaidean aritu ondoren ortografia sistema bat onartzen dugula, eta horretatik harantzago zentzuzko urrats bat bera ere egiterik ez dagoela; eman dezagun sistema biribil-biribila sortzen dugula, izan daitkeen sistemarik egokien eta zentzukoena, batere akatsik eta hutsunerik ez duena: bada, hori guztia alferrik dugu, ez badugu gehiengoaren adostasunik lortzen, gehienek euren idatzietan sistema hori erabili eta gainerakoak baztertuko dituztela hitz ematen ez badigute.

Zintzoki diotsuet, jaunak, ahozko saio soiletan onartu beharko balitz nik asmatutako transkripzio sistema bat, neuk ere ez niokeela biltzar honi eskurik emango hala onartutako sistema aldarrikatzeko, eta ez biltzarra osatzen duten jakintsuak gutxiesten ditudalako, jakina, baizik eta prozedura ahozko eztabaidea soila izan delako.

Horregatik uste dut ez dugula aski saio hau, ezta beste bi edo gehiago ere, alderdi guztietatik egokia den irtenbidea asmatzeko. Hala, bada, euskararen ortografiari buruzko arauen baterakuntzaren arazo honi konponbide egokia emateko asmotan nik neuk plan bat gertatu dut, eta ondo baderitzozue irakurri egingo dizuet proposamen gisa, ea zer irizten diozuen.¹

1. Sarrera-hitz horien ondoren Arana Goiri jauna bere plana irakurtzen zihola —ohartarazten zuen “Jel” aldizkariak 1908an—, biltzarrerako deia egin zuen eta izatez biltzarreko zuzendari ziharduen Guilbéau jaunak arren eskatu zion bere asmoa bertan behera uzteko, eta halaxe egin zuen Arana jaunak. Orduan Guilbéau jaunak esan zuen biltzarra hasi aurretik biltzarkideak hiru batzordetan banatzea erabaki zela, ortografaren baterakuntza azter zezaten eta gero zeinek bere proposamena biltzarrari aurkez ziezaioten. Egin ere horrela egin zuten, eta ohorezko mahaien zeuden hiru jaunak izendatu zituzten batzordeburu, alegia, Baionako kalonje Adema jaun zahar ohoragarria, Kämpion eta Arana jaunak. Azken hori buru zuen batzordeko kideek, Guilbéau jauna ere tarteko, aho batez onetsi zut en batzordeburuak aurkeztutako proposamena. Biltzarra berriz ere bildurik, bi orduko etenaldiaren ostean, biltzarkideek aho batez onetsi zuten proposamen bera. Hauxe zen Arana jaunaren plana.



1.- Hil honetan bertan, euskal lurredeetan alerik gehien saltzen dituzten egunkarieitan zenbait egunez argitaratuko da gutun bat, biltzar honetara eterri diren euskalari guztiekin sinatua. Bertan dei egingo zaie euskalari eta euskaltzale guztiei, euskotar nahiz atzerritar, garaia denean egingo den beste biltzar baterako atxikimendua adieraz dezaten, euskararen ortografiari buruzko arauak bateratzea beste helbururik izango ez duela.

Atxikimendua adieraziz gero, segurutik biltzarrera eterriko direla ulertu beharko da, eta hitz ematen dutela biltzarreko erabakiak beteko dituztela eta jendaurreko idatzietan ez dutela beste ortografia sistemarik erabiliko biltzar horretan onartzen dena baino.

Atxikimendua jasotzeko epea urriaren 15ean amaituko da.

2.- Urriko bigarren hamabostaldian, biltzar honetako buruak dei egingo die gai honi buruzko iritzia azaldu nahi duten guztiei, euskararen ortografia arauak batezatzeko proiektua idatzi eta inprimaraz dezaten; euren idazlan horretan egoki deritzoten metodoa erabiliko dute, baina, edozelan ere, baterakuntzan aintzat hartu beharreko "hots berdinak", "printzipio ortografikoak" eta "irizpide-arauak" azalduko dituzte, eta horiek euskalki guztieta moldatuko dituzte, euskalkiek berdinak dituzten alderdi guztietaan.

Dei hori atxikimendua adierazi duten euskalari guztiei egingo zaie, euskalarion izenen eta helbideen zerrenda ere osatuko da, eta deialdiarekin batera zerrenda bidaliko zaie.

Abenduaren 31 baino lehen, proiektuen egileek proiektuaren bi ale bidaliko dizkiote Biltzar honetako buruari eta ale bana euskalariei. Horrenbestez, eskubidea edukiko dute euren proiektuak biltzar erabakigarrian eztabaidatu daitezen. Biltzarburu jaunak, proiektu baten bi aleak jaso eta berehala, hartu izana adieraziko dio egileari, eta atxikimendua agertu duten gainerako euskalariak ere jakitun jarriko ditu.

3.- Abenduaren 31n amaituko da eztabaidatu beharreko proiektuak jasotzeko epea. Hurrengo sei hilabeteetan, biltzarrerako atxikimendua agertu duten euskalariek proiektuei buruzko oharrak eta arrazoia idatzi eta inprimarazi ahal izango dituzte.

Proiektu inprimatu bakoitzaren aurkako arrazoia zenbatuta banatuko ditu egileak, hartara, atal zehatzak osatuz. Biltzarburu jaunari bi ale bidaliko dizkio, eta biltzarkideei ale bana. Biltzarburu jaunak hartu izana adieraziko dio egileari, eta gainerako biltzarkideak jakinaren gainean jarriko ditu, proiektuekin egin duen bezalaxe.

4.- Biltzar erabakigarria 1902ko irailean egingo da. Biltzarburu jaunak bertaratzeako deia egingo die euskalariei hamabost egun lehenago, eta deialdiarekin batera saioko edo saioetako aztergaien zerrenda ere bidaliko die, hau da, proiektu-egileen zerrenda eta proiektuen aurkako arrazoien egileen zerrenda.

5.- Saio bat aski ez balitz proiektu guztiak eztabaidatzeko eta bozketa bidez onartu edo atzera botatzeko, biltzarrak saio gehiago egingo lituzke hurrenez hurren.

Proiektuak eztabaidatzeko eta haiei buruzko bozketak egiteko orduan, jaso ziren hurrenkera berean hartuko dira.

1901 EKO
IRAILAREN
16AN SABINO
ARANAK
HENDAIAN
EGIN ZUEN
HITZALDIA



Biltzarburu jaunak proiektuaren egilea nor den esango du, eta jarraian, haren aurkako arrazoiak aurkeztenak nortzuk diren. Gero, proiektuaren egileak bost minuto izango ditu bere proiektuaren alde egiteko aurkako lehen arrazoiari erantzunez, eta aurkako arrazoiaren egileak ere bost minuto izango ditu hitz egi-teko. Aurkako bigarren arrazoiari eta hurrengoei dagokienez, berdin jokatuko da.

Proiektuari buruzko eztabaidea amaitzen denean, bozketa egingo da.

Proiektu guztiei buruzko bozketak egin eta gero, biltzarburu jaunak, biltzarkide guztien izenean, botorik gehien lortu dituen proiektua onartutzat emango du. Proiektu batek ere ez badu lortzen biltzarrean diren biltzarkideen erdien botoak gehi beste boto bat, biltzarraren xedea bete gabe geratu dela adieraziko da.

- 6.- Dena dela, saioko edo saioetako akta inprimatu eta argitara emango da eta biltzarkideei ale bana bidaliko zaie. Proiektuetariko baten bat onartzten bada, aktarekin batera argitara emango dira proiektu guztiak eta proiektuon aurka azaldutako arrazoi guztiak.
- 7.- Biltzarkideak frantsesez, espainieraz nahiz euskaraz mintzatu ahal izango dira. Takigrafo bat egongo da frantsesez idazteko eta beste bat espainieraz idazteko. Euskal Herrikoak ez diren biltzarkideek hizpidea izango dute euren proiektua aurkezteko eta beste proiektu batzuen aurkako arrazoiak azaltzeko, baina ez dute hautespiderik izango.²

**1901eko
irailaren
16an SABINO
ARANAK
HENDAIAN
EGIN ZUEN
HTZALDIA**

**Arana-Goiri'tar Sabin
Hendaian, 1901eko irailaren 16a**

2. Biltzarrak onartutako plan hori ez da bete, ez dakigu zergatik —zioen azkenean "Jel" aldizkariak 1908an—.

